



AZTERTU: ERROTULADOREEN KOLOREAK NOLA EGINDA DAUDEN

Errotuladore-kolore asko beste kolore batzuk nahasiz sortuak dira (adibidez, urdina eta horiaren nahastea izan liteke berdea). Koloreak bereizteko prozesu bat (kromatografia) erabiliz, zein kolore nahasi diren ikus dezakezu. Kromatografiak honela funtzionatzen du: ura iragazki-paper margotu batean barneratzen da, eta, kolore-molekuletara iritsitakoan, berekin eramaten ditu. Kolore-molekula batzuk besteak baino astunagoak dira, eta, beraz, urak motelago eramaten ditu. Urak zure errotuladoreko kolore-molekulei bultza egin ahala, ikusiko duzu kolore-molekula astunenak arinenetatik banatzen direla, eta, hala, errotuladorearen kolorea lortzeko zein kolore nahasi ziren jakingo duzu. Egin proba hainbat koloretako errotuladoreekin, zer gertatzen den ikusteko. Teknika desberdinekin ere egin dezakezu proba, koloreak bereizteko onena zein den jakiteko.

MATERIALAK

- ☐ Kafe-iragazki zuriak
- ☐ Errotuladore garbigarriak
- ☐ Ura
- ☐ Ontziak

GAKOAK

- Margotu kolore batez (edo gehiagoz) kafe-iragazki lehor bat. Puntu bat, lerro bat edo bestelako marka bat egin dezakezu.
- Gero, bota ura kafe-iragazkiaren zati batean. Ez busti margotutakoa.
- Utzi urari iragazki-paperean zehar joaten. Ura errotuladorez markatutako zatira iristean, bultza egiten hasiko da. Kolore-pigmentu bakoitzak bere pisua du, eta urak kolore argienei egiten die bultza azkarren. Hala, iragazki-paperean koloreak bereizten hasiko da.
- Metodo batekin baino gehiagorekin egin dezakezu proba (adibidez, kafe-iragazkiak osorik edo moztutako zerrendak bustiz). Egin proba ura kafe-iragazkian gora mugituz, kafe-iragazkia zeharkatuz edo kafe-iragazkian behera mugituz. Gogoratu beharreko gauza bakarra da margotutakoari ez zaiola zuzenean ura bota behar. Kontua da ura mugitzea margoan zehar, eta kafe-iragazkian zati lehor bat eta zati umel bat lortzea.

Gehiago nahi baduzu...

ERABILI KAFE-IRAGAZKI OSOAK APAINTZEKO, ETA EGIN ARTEA BUKATUTAKO IRAGAZKIEKIN; LORE-PETALOAK SOR DITZAKEZU, ESATE BATERAKO.